EIBARKO UDALA
www.eibar.net

# [e]kultura

APIRILA 2012 *ABRIL*

107



# APIRILA 2012 ABRIL


**eguna** / *día* — **orr.** / *pag.*

**1** *BANDA DE TXISTULARIS* USARTZA TXISTULARI BANDA
**musika *música*** . . . . . 6
*XLI MEMORIAL VALENCIAGA*
**kirola *deporte*** . . . . . 15
PLAY/WII
**Indianokua Gaztelekua** . . . . . 21

**2** LAU ANAI UMEZURTZAK
**zapatuko ipuina *cuento del sábado*** . . . . . 8
BOOKCROSSING
**liburutegia *biblioteca*** . . . . . 9
*ANTIVIRUS*
*MÓDULO DE IMAGEN Y SONIDO*
**KZGunea** . . . . . 22
*FORO DE PLANTAS: LA ANÉMONA Y LA NUEZA*
**Ikasten** . . . . . 22

**4** EUSKAL HERRIKO ITZULIA-*VUELTA AL PAÍS VASCO*
**kirola *deporte*** . . . . . 15
PLAY/WII
**Indianokua Gaztelekua** . . . . . 22
*VISITA AL ARCHIVO MUNICIPAL*
**Ikasten** . . . . . 22

**5** EUSKAL HERRIKO ITZULIA-*VUELTA AL PAÍS VASCO*
**kirola *deporte*** . . . . . 15
*CURSO INTERNET*
**KZGunea** . . . . . 22

**10** *EBAY*
**KZGunea** . . . . . 22

**11** *CAFÉ TERTULIA: MEDICINA ALTERNATIVA*
**Ikasten** . . . . . 22

**13** *PAYPAL*
**KZGunea** . . . . . 22
*NORA - Mikel Urdangarin & Traspasos*
**musika *música*** . . . . . 24

**14** MUNDUKO APAINGARRIAK
**Indianokua Gaztelekua** . . . . . 21

**15** *LII MEMORIAL OTXOA*
**kirola *deporte*** . . . . . 15

**16** *FAMILIA Y ESCUELA: UNA TAREA COMÚN*
**hitzaldia *charla*** . . . . . 11
GAZTE OPORRALDIAK 2012
**udalekuak** . . . . . 21

**17** LI(BURU-HAUSGARRIAK)
*PUZ-LEES*
**liburutegia *biblioteca*** . . . . . 9
*ZER JAKIN BEHAR DUGUN SARE SOZIALEI BURUZ?*
**hitzaldia *charla*** . . . . . 11
*MÚSICA: MARINA LERTXUNDI*
**Ikasten** . . . . . 22

**18** HEZKUNTZAREN ALDEKO MUNDU-KANPAINA
*CAMPAÑA MUNDIAL POR LA EDUCACIÓN*
**liburutegia *biblioteca*** . . . . . 10
LARRAIN DANTZA, FANDANGO ETA ARIN-ARIN
IKASTAROA
**Arrate Kultur Elkartea** . . . . . 21
*SENDERISMO: ABADIÑO - ATXARTE*
**Ikasten** . . . . . 22

**19** GAZTEPINTXO
**Indianokua Gaztelekua** . . . . . 21
*SOFTONIC*
**KZGunea** . . . . . 22
*VIDEOCONFERENCIA. CRISIS ECONÓMICA:*
*CLAVES PARA SU COMPRENSIÓN*
KALEETAN KANTUZ
**Ikasten** . . . . . 22

**20** EIBARKO IGNACIO ZULOAGAREN EGUNGO ISLAK
*REFLEJOS CONTEMPORÁNEOS DE IGNACIO*
*ZULOAGA DE EIBAR*
**erakusketa *exposición*** . . . . . 5
AITOR CANO
**Topaelu** . . . . . 5
*VOCES Y CUERDAS*
**musika *música*** . . . . . 7








































## APIRILA 2012 ABRIL

eguna *día* — orr. *pag.*

**20** *CÓMO PREVENIR LA DEMENCIA*
**hitzaldia *charla*** . . . . . . . . . . 11
MUNDUKO MUSIKAK
**Indianokua Gaztelekua** . . . . . . . . . . 21

**21** *LA OREJA DE VAN GOGH*
**musika *música*** . . . . . . . . . . 6
*BIHARAMUNEKO SOKA DANTZA*
**urteurrena *aniversario*** . . . . . . . . . . 15
MUNDUKO ERREZETAK
**Indianokua Gaztelekua** . . . . . . . . . . 21
KALEETAN KANTUZ
**Ikasten** . . . . . . . . . . 22

**22** *BANDA DE MÚSICA* CIELITO MUSIKA BANDA
**musika *música*** . . . . . . . . . . 6
PLAY/WII
**Indianokua Gaztelekua** . . . . . . . . . . 22

**23** LIBURUAREN NAZIOARTEKO EGUNA
*DÍA INTERNACIONAL DEL LIBRO*
**liburutegia *biblioteca*** . . . . . . . . . . 10
*DISCIPLINA POSITIVA*
**hitzaldia *charla*** . . . . . . . . . . 11
*METAPOSTA*
**KZGunea** . . . . . . . . . . 22

**24** DISZIPLINA POSITIBOA
**hitzaldia *charla*** . . . . . . . . . . 11
*MÚSICA: MARINA LERTXUNDI*
**Ikasten** . . . . . . . . . . 22

**25** *75 ANIVERSARIO DE LOS BOMBARDEOS DE EIBAR*
**urteurrena *aniversario*** . . . . . . . . . . 16

**26** *LAS MANOS EN EL AIRE*
**Ego Ibar zinekluba** . . . . . . . . . . 15
*POESIA ETA KANTUEN ERREZITALA*
*MAIALEN LUJANBIO / JUAN PINILLA*
**urteurrena *aniversario*** . . . . . . . . . . 17
GAZTEPINTXO
**Indianokua Gaztelekua** . . . . . . . . . . 21
*COMPETENCIAS CONVERSACIONALES: SABER CONVERSAR PARA MEJORAR LAS RELACIONES*
KALEETAN KANTUZ
**Ikasten** . . . . . . . . . . 22

**27** BONBARDAKETAK 1937
ITXAROPENA
**urteurrena *aniversario*** . . . . . . . . . . 18
BREAKDANCE IKUSKIZUNA
**Indianokua Gaztelekua** . . . . . . . . . . 21

**28** BIDAIAN
**zapatuko ipuina *cuento del sábado*** . . . . . . . . . . 8
*ANDRES EGIGUREN ORKESTRA*
*SOSTOA ABESBATZA - EASO ABESBATZA*
**urteurrena *aniversario*** . . . . . . . . . . 18
PLAY/WII
**Indianokua Gaztelekua** . . . . . . . . . . 21

**29** PAINTBALL IRTEERA
**Indianokua Gaztelekua** . . . . . . . . . . 21

**30** *ASPECTOS DEL DESARROLLO Y ESTRATEGIAS PARA EDUCAR*
**hitzaldia *charla*** . . . . . . . . . . 11

## MAIATZA 2012 MAYO

**5** *PASEO RECORRIDO HISTÓRICO BOMBARDEOS E INCENDIO DE EIBAR*
**urteurrena *aniversario*** . . . . . . . . . . 19

**8** *GERRA OSTEKO EUSKAL HERRIAREN ERAIKITZEA EIBARKO BERRERAIKUNTZA LANAK*
**urteurrena *aniversario*** . . . . . . . . . . 19

**11** *SAN JUANAk 2012 KARTEL LEHIAKETA*
*CONCURSO DE PEGATINA HUMORÍSTICA CONTRA EL ABUSO DEL ALCOHOL*
**lehiaketak *concursos*** . . . . . . . . . . 20

## TALDEKO MUGIMENDUTIK BAKARDADEKO GELDITASUNERA
## VON DER GEMEINSAMEN BEWEGUNG ZUR GELÄHMTEN EINSAMKEIT
## *DEL MOVIMIENTO CONJUNTO A LA SOLEDAD PARALIZADA*

**Susana Jodra**

**apirilak 1 arte - *hasta el 1 de abril* PORTALEA**



Portaleako erakusketa aretoa eremu artistiko bilakatuko da beste behin. Oraingoan, bere artea plazaratzeko beta izango duen artista **Susana Jodra** bizkaitarra da, Sopelanakoa da eta Arte Ederren irakaslea EHUn, teknika grafikoetan espezializatua mugimendutik bakardadeko gelditasunera" titulupean, Jodrak oinarrizko mekanismoak, herdoiltzea eta ezinezko mugimenduak bezalako mugimenduak islatu nahi ditu bere lanetan. Artistak adierazi nahi duena da egunerokoan jasaten ditugun aldaketez gain, beti mugimenduan jarraitzen dugula.

## INDALECIO PRIETO EUSKAL POLITIKAN, 1883tik 1962ra
## *INDALECIO PRIETO EN LA POLÍTICA VASCA (1883-1962)*

**apirilak 29 arte - *hasta el 29 de abril* PORTALEA**

Con motivo del cincuentenario del fallecimiento de **Indalecio Prieto**, acaecido en su casa de México el 12 de febrero de 1962, PORTALEA acoge una exposición que tiene como objetivo recordar su figura y su trayectoria política en la primera mitad del siglo XX. La muestra es una iniciativa de la Consejería de Cultura del Gobierno Vasco, y **Ricardo Miralles**, catedrático en historia contemporánea de la UPV, es el comisario de la exposición. **"En la Historia de Euskadi, Prieto ha sido el líder más importante que ha tenido el socialismo y el político vasco con talla de estadista más relevante del siglo XX junto con el lehendakari José Antonio Aguirre"**, dice **Miralles**, y asegura que **"ambos fueron los artífices del Estatuto de 1936 y los padres fundadores de la Euskadi autónoma en la Guerra Civil"**.



*Bilbao 1933. Fundación Pablo Iglesias*

# EIBARKO IGNACIO ZULOAGAREN EGUNGO ISLAK
# *REFLEJOS CONTEMPORÁNEOS DE IGNACIO ZULOAGA DE EIBAR*

Ignacio Zuloaga Institutuko arte batxillergo ikasleen erakusketa

*Exposición de alumnas y alumnos de bachiller artístico del Instituto Ignacio Zuloaga*

**apirilak 20 - 29 *abril*   PORTALEA**




*Hace años se puso en marcha la apuesta de exponer los trabajos de los estudiantes del Instituto Ignacio Zuloaga, que lleva por título **'Ignacio Zuloaga Institutuaren Egungo Islak'**. En concreto, se podrán ver los **trabajos artísticos** de alrededor de 45 alumnos y alumnas de entre 16 y 19 años de edad. La mayoría de ellos cursan el bachillerato artístico, pero la muestra también da cabida a obras realizadas por alumnos del resto de bachilleratos. Como es habitual en este tipo de muestras colectivas, se podrá ver una **amplia variedad de obras, con distintos estilos** y pertenecientes a diferentes disciplinas artísticas.*

## Ikasleak protagonistak

Badira urteak **Ignacio Zuloaga Institutuan Batxilergoa** ikasten ari diren gazteen artelanen **erakusketa** burutzeko apustua egin zela, hein handi batean **batxilergo artistikoa** egiten ari diren ikasleen lanak egongo dira ikusgai. Ikasketa artistikoak egitearen aldeko hautua egin duten ikasleen obrak jendearengana hurbiltzea da erakusketaren xedea, kurtsoan zehar gauzatzen dituzten artelanak plazaratu asmoz. Ekintza hau **Portaleako** erakusketa areto nagusian egiten da eta 2 astetako iraupena izaten du.

Ikasleek ikasgai ezberdinetan landutako hamaika lan izango dira ikusgai: marrazketa tekniko eta artistikoa, diseinuaren oinarriak (barne diseinua, grafikoa eta industriala), margogintza, zeramika, argazkigintza, ikus-entzunezko kultura… Artista **gazteek gelako egunerokotasunean gauzatzen dituzten lanak** erakutsiko dira, hau da, ez bereziki okasio honetarako prestatutako artelanak, kurtsoan zehar klase ezberdinetan burutzen dituztenak baizik.

Horregatik hartzen du erakusketak **"Ignacio Zuloaga Institutuaren Egungo Islak"** izena. Ekimen hau 1999-2000 ikasturtean jarri zen martxan, eta data kontuak direla eta ezin izan da erakusketa urtero ospatu, baina urteen poderioz ohitura bihurtu da eta azken urte hauetan beti gorde izan da tarte bat Portaleako erakusketa aretoan ikasleen lanak hartzeko. Izan ere, ikasleentzako aukera paregabea da euren obrak herritarren eskuetan jartzea, eta ikasleak pozik sentitzeaz gain, hauen gurasoak ere oso arro azaltzen dira.Aurtengo ediziorako bada **berritasun nabarmen bat**, beste askoren artean. Hain zuzen ere 5x2 metroko tamainako **hiru mural** eramango dituzte Portaleako areto nagusira, bakoitza bost ikasleren artean gauzatutako obrak dira. Jarduera hauek ikasleak bakarkako lanetan ez ezik taldeko lanean trebatzeko planteatu dira, elkarrekin lana nola egiten den ikas dezaten.

ARRATE KULTUR ELKARTEA

## TOPALEKU

### CHARO BAGLIETTO

**Pintura**

**apirilak 8 arte - *hasta el 8 de abril***

### AITOR CANO

**Pintura - Talla**

**apirilak 20 - 29 *abril***



## *BANDA DE TXISTULARIS* USARTZA TXISTULARI BANDA

**kontzertua** ***concierto***

**apirilak 1 *abril*** 12:30 **UNTZAGA**



## *BANDA DE MÚSICA* CIELITO MUSIKA BANDA

**kontzertua** ***concierto***

**apirilak 22 *abril*** 12:30 ***teatro* COLISEO antzokia**

## *LA OREJA DE VAN GOGH*

**kontzertua** ***concierto***

**apirilak 21 *abril*** 23:00 ***frontón* ASTELENA frontoia**

ez da geratzen sarrerarik - *entradas agotadas*

**La Oreja de Van Gogh** talde donostiarraren kontzertua hartuko du Astelenak apirilaren 21ean, 2011eko irailean kaleratutako **`Cometas por el cielo´** izenburutzat duen azken lanaren aurkezpen biraren baitan. Ikuskizun kulturalak herrian sutatzeko iaz sortu zen eta Jai Productions enpresa eibartarrak lotu du kontzertua. 2011 hasieran ekin zion elkarte honek lanari eta jada zortzi emanaldi antolatu ditu. Sarreren prezioa 25 eurokoa izango da aldez aurretik erosiz gero, eta leihatilan 30 eurogatik erosi ahalko dira.



## *La Oreja de Van Gogh presenta su último trabajo en el Astelena*

*El Astelena acogerá el próximo 21 de abril un concierto del grupo donostiarra **La Oreja de Van Gogh**, que llegará a Eibar en medio de la gira de presentación de su último trabajo, **'Cometas por el cielo'**. El concierto lo ha organizado la empresa eibarresa Jai Productions, dedicada a la promoción de espectáculos culturales, que empezó su actividad a principios del 2011 y a lo largo de ese año ha traido a Eibar ocho espectáculos.*

***La Oreja de Van Gogh** está formada actualmente por **Leire Martínez** (voz), **Pablo Benegas** (guitarra), **Xabi San Martín** (teclados), **Álvaro Fuentes** (bajo) y **Haritz Garde** (batería). Desde su aparición en 1998 ha vendido más de 7 millones de discos en todo el mundo.*

***`Cometas por el cielo´**, presentado en septiembre de 2011, ya es disco de oro en España desde su primera semana a la venta y continúa manteniéndose en los primeros puestos. El álbum está producido por **La Oreja de Van Gogh** y el sueco **Simon Nordberg** (reconocido productor que ha trabajado con artistas como Eagle Eye Cherry o Britney Spears entre otros).*

antolatzaileak JAI PRODUCTIONS - Eibarko Udala *organizan*

# *VOCES Y CUERDAS*

**apirilak 20 *abril*** 20:30 6 € ***teatro* COLISEO antzokia**

**"Voces y Cuerdas"** laukote eibartar enblematikoa **berriztuta** dator aurtengoan, talde berria jaio zen urrian eta hau izango da eskainiko duten lehendabiziko kontzertua. Hori bai, estilo berdina jorratzen jarraitzen dute eta doinu alai horien lekuko izango da Coliseo antzokia. **Vicente Ramirez** (ahotsa eta gitarra), **Alberto Alberdi** (rekintoa) eta **Aitor Errasti** (ahotsa eta perkusioa) lagun dituela, **Marivi Murillo** da taldearen ahots berria eta lehenago egiten zuten moduan, eibartarrek hainbeste miresten dituzten **bolero eta rantxerak** izango dira entzungai taula gainean.



## *Sonidos para el recuerdo*

*Hace unas cuantas décadas que los boleros y las rancheras entraron con éxito en Eibar y pasaron a formar parte de la cultura popular. Eran tiempos en los que se cantaba en los bares con repertorios muy conocidos para todos los que vivieron aquella época. Intentando recuperar aquella esencia, hoy por hoy el cuarteto eibarrés **"Voces y Cuerdas" reaparece como una nueva formación** y comienza de este modo una nueva trayectoria. El emblemático grupo ofrecerá un concierto en el teatro Coliseo acompañado por jóvenes músicos de **Juan Bautista Gisasola Musika Eskola**.*

***Marivi Murillo** es la nueva voz principal del grupo, a la que acompañan **Vicente Ramírez** (guitarra y voz), **Alberto Alberdi** (requinto) y **Aitor Errasti** (voz y percusión). Como viene siendo habitual en esta formación, el concierto estará compuesto principalmente por **boleros**, aunque también habrá lugar para algunas **rancheras**. Eibar siempre ha sido **"muy cantarín"** y no cabe duda de que el cuarteto apasionado por los boleros tendrá una buena acogida por parte de los eibarreses y eibarresas.*

*La música sudamericana ha tenido en Eibar un feudo muy importante de aficionados. Figuras como Los Panchos o María Dolores Pradera han llenado recintos y también los grupos locales dedicados a este género vivieron una época dorada años atrás. Algunos no están dispuestos a que un estilo que viene de tan lejos pero que se llega a considerar «tan eibarrés» quede en el olvido, por lo que los componentes de **"Voces y Cuerdas"** esperan una cálida acogida.*

### ZAPATUKO IPUINA

### *EL CUENTO DEL SÁBADO*




## LAU ANAIA UMEZURTZAK

**Irrintzi Taldea**

**Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna**
***Día Internacional del Libro Infantil***

**apirilak 2 *abril*** 18:00
**Umeen Liburutegian / *Biblioteca infantil***

iraupena 60' *duración*

**Eskuko txotxongilo** edo kurriñoen munduan sartzen gaituen emanaldia da. Atzerki mota honek ematen duen bizitasun, konplizitate eta umorean profitatuz, ipuin klasiko honen bertsioa eskaintzen zaie txikienetatik hasita famili publikoari.

Lau anaia bizi diren baserria gainbehera doa. Lanbide berri bana ikastera behartuta daude. Gazteluko printzesa, Ohianeder, asperturik dago eta herensugearen bisitaldia izango du. Hortik aurrera **emozio, sentiberatasun eta akziozko antzezpena** sortzen da.

*Espectáculo que nos introduce en el mundo de las* ***marionetas de manos****. Aprovechando la vivacidad, la complicidad y el humor que nos proporciona este tipo de teatro, se ofrece la versión de este cuento clásico al público familiar, empezando por los más pequeños.*

*El caserío en el que viven los cuatro hermanos se va empobreciendo gradualmente y no les queda más remedio que buscar otro trabajo. La princesa del castillo, Ohianeder, está aburrida y recibirá la visita del dragón. A partir de ahí, se pone en marcha una representación llena de* ***emoción, sensibilidad y***



## BIDAIAN

**Ingumak Taldea**

**apirilak 28 *abril*** 18:00
**Umeen Liburutegian / *Biblioteca infantil***

iraupena 60' *duración*

**Ingumak** antzerki taldea 2005ean sortu zen Nafarroan.
Taldearen lehendabiziko lana **"Emakumea eta harea"** izan zen. Helduei zuzendutako antzerkia, musika zuzenean eta aktoreak elkartzen zituena eta Angel Sagüesek zuzendua.
Nafarroako Gayarre Antzokian, 2008an bere bigarren lana taularatu zuten, **"Miradas",** talde lanean sortutako antzezlan poetikoa eta helduei zuzendua hau ere.
Ondoren, haurrentzako narrazioaren mundura eraman ditu bere pausoak taldeak, eta gaur egun, Izaskun Mujika sortzaileetakoak, Lur Kortarekin batera, **Bidaian**, ipuin saio antzeztua eskaintzen dute Nafarroa zein Euskal Herriko liburutegi eta ikastetxetan.
Bertilde ipuin idazle oso ezaguna da eta Cupertinak, berriz, arrantzatu egiten ditu istorioak...
Autobus geltokian topo egin dute, baina Oilotokietarako autobusa atzerapenarekin dator, beraz, elkarri beraien istorioak kontatuko dizkiete. Autobusa etorri bitartean, ikusleek Ipar Polora itsasoan barrena edo Txinara hegazkinez bidaiatzeko aukera izango dute. Gainera, Bertilde eta Cupertinak beraien ipuinak kontatzeko ikuslegoaren laguntza ere eskatuko dute.

babeslea gizarte kutxa *patrocina*

## BOOKCROSSING

**apirilak 2 *abril*** 16:30 **Umeen Liburutegian / *Biblioteca infantil***

**Bookcrossing-a leku publikoetan liburuak "askatzea"** (uztea) da, gero beste irakurleren batek hartu eta gauza bera egin dezan. Helburua liburuak "oihanean" askatzea da, beste norbaitek aurki ditzan.

Ekimen hau Liburutegian egingo dugu **apirilaren 2an, arratsaldeko 4 t'erdietan**. Horretarako **tailer** bat antolatu dugu eta bertan azalduko da zertan datzan egitasmo hau.

*Bookcrossing se basa en **"liberar"** (dejar) **libros en sitios públicos**, para que cualquier lector/a los coja y haga lo mismo con ellos. El objetivo es liberar los libros en la "selva" para que otra persona los encuentre.*

*Llevaremos a cabo esta actividad en la Biblioteca el día **2 de abril, a las 4 y media de la tarde**. Para ello hemos organizado un **taller** y en el mismo se explicará en qué consiste esta acción.*

## LI (BURU-HAUSGARRIAK)
## *PUZ-LEES*

**apirilak 17 *abril*** **Umeen Liburutegian / *Biblioteca infantil***




**Irakurketa eta ikerketa bateratzen duen jokoa** da.

**Apirilaren 17an** hasiko da. Jokoa **L.H.ko 2. mailatik aurrerakoentzat** da. Liburuak irakurri eta gero, buru-hausgarri baten piezak lortzen dira galdera batzuei erantzunez. Asuntoa da puzlean agertzen den irudia zeri dagokion jakitea.

*Es un **juego que combina la lectura y la investigación**.*

*Comenzará el **17 de abril**. El juego es para niños y niñas **a partir de 2º de E.P.** Cada vez que se lee un libro, se consiguen piezas de un puzle tras responder a unas preguntas. La clave está en saber cuál es la imagen que se esconde en el puzle.*

## HEZKUNTZAREN ALDEKO MUNDU-KANPAINA
## *CAMPAÑA MUNDIAL POR LA EDUCACIÓN*

**apirilak 18-30 *abril*** **Juan San Martin liburutegia**

**Hezkuntzaren Aldeko Mundu-Kanpainak denontzako Hezkuntza lortzea** helburu duten hainbat jarduera antolatzen ditu. Aktibitate garrantzitsuenetako bat **Hezkuntzarako Ekintza Mundialaren Astea** da, hezkuntzaren alde egiteko mobilizazio astea.
**Egoaiziarekin batera**, Liburutegiak hartzen du parte **kalitatezko oinarrizko hezkuntza baten aldeko eskubidea eta beharra errealitate egiteko** xedea duten jarduera hauetan.

*La **Campaña Mundial por la Educación** lleva a cabo diversas actividades encaminadas a la consecución de la **Educación para Todos y Todas**. Una de las principales actividades es la **Semana de Acción Mundial por la Educación, SAME**, semana de movilizaciones a favor del derecho a la educación.*

*La Biblioteca participa, junto con **Egoaizia**, en estas actividades con las que se trata de llamar la atención sobre la necesidad de hacer **real y efectivo el derecho a una educación básica de calidad**.*

**"EN EL MUNDO A CADA RATO"**
Dokumentala (10-14 urte)
**apirilak 24 abril** 17:00
**Juan San Martin liburutegia**

**"IRUDI HANDIA: ESKUBIDEAK HASIERATIK"**
Tailerra (6-9 urte)
**apirilak 25 abril** 17:00
**Juan San Martin liburutegia**

**"AMINA Y MUSA APRENDEN"**
Dokumentala (6-9 urte)
**apirilak 26 abril** 17:00
**Juan San Martin liburutegia**

- Liburu, ipuin, joku eta DVDen **mailegua**
- Hezkuntzaren Aldeko Mundu-Kanpainaren asteko materialen **interesgunea**

- ***Préstamo** de libros, cuentos, juegos y DVDs*
- ***Centro de interés** con los materiales de la Semana de Acción Mundial por la Educación (SAME)*

## LIBURUAREN NAZIOARTEKO EGUNA
## *DÍA INTERNACIONAL DEL LIBRO*

**apirilak 23 *abril*** 10:00-13:00 / 16:00-19:00 **UNTZAGA**

**Liburuaren Nazioarteko eguna** ospatzeko, **Untzagara** joango gara eta stand bat jarriko dugu **Eibarko Juan San Martin Liburutegia** ezagutarazteko eta zerbitzuari buruzko iradokizunak eta iritziak jasotzeko.



*Con el fin de celebrar el **Día Internacional del Libro**, colocaremos un stand en **Unzaga** para da a conocer la **Biblioteca Juan San Martin de Eibar** a la ciudadanía, así como para recoger sugerencias y opiniones acerca del servicio.*

Bertan bazkide egiteko aukera emango da, eta baita materialak etxera eraman ahal izango dira mailegu zerbitzua erabiliz.

*Se tendrá la ocasión de hacerse socio/a de la Biblioteca, así como de llevarse a casa materiales utilizando el servicio de préstamo.*

# Gurasoak martxan

Gurasoei euren seme-alabek bizi dituzten egoera ezberdinetan laguntzeko behar duten informazioa helaraztea, dauden eboluzio etapara egokitua.

*Proporcionar a los padres y madres la información que les capacite para afrontar las situaciones que les puedan plantear sus hijos e hijas, adecuados a la etapa evolutiva en que se hallen.*

- **FAMILIA Y ESCUELA: UNA TAREA COMÚN**
  **apirila 16 *abril*** 18:30 **ALDATZE**
- **ZER JAKIN BEHAR DUGUN SARE SOZIALEI BURUZ? (FACEBOOK, TUENTI, WEB 2.0,...)**
  **apirila 17 *abril*** 18:30 **MOGUEL ISASI** (ITURBURU)
- **ASPECTOS DEL DESARROLLO Y ESTRATEGIAS PARA EDUCAR**
  **apirila 30 *abril*** 18:30 **ARRATEKO ANDRA MARI**
- **DISCIPLINA POSITIVA**
  **apirila 23 *abril*** 18:30 **ITZIO**
- **DISZIPLINA POSITIBOA**
  **apirila 24 *abril*** 18:30 **MOGEL ISASI**

hizlaria **BAIKARA** *ponente*

## *CÓMO PREVENIR LA DEMENCIA*

***José Félix Martí Massó**, jefe del servicio de Neurología del Hospital Donostia y profesor de neurología de la UPV ,*

**apirilak 20 *abril*** 18:00 **PORTALEA**



Martí Massó doktorearen arabera, "burmuina 30 urterekin zahartzen hasten den organoa da, eta beste guztiak bezala, zaindu egin behar da. Hau egiteko modu eraginkorra aktibo mantentzea da, jarduera mentalek erreserba kognitiboa gehitzen baitute eta luzaroan ondo mantentzea ahalbidetu".

*Según el Dr. Martí Massó," El cerebro es un órgano que empieza a envejecer a los 30 años y, como los demás, hay que cuidarlo.Una buena forma de hacerlo es manteniéndolo activo, ya que el ejercicio mental aumenta la reserva cognitiva que permite mantenerse bien más tiempo".*

antolatzailea Buruz Gimnasio Cerebral *organiza*

Eibarko udala
www.eibar.net

# Umeentza
## Actividades infa

## Apirila
## Abril



**2**

Haur Liburuaren
Día Internaciona
**BOOKCROS**

Umeen liburutegia
**Euskeraz**
17:00etan Doan

**17**

**Li(buru-hausgarriak)**
**Puz-lees 3**

Umeen liburutegia
**L.H.ko 2.mailatik aurrera**
**A partir de 2º de primaria**
Oinarriak liburutegian




**18**

Umeen irakurket
Club de lectura i
**Izen ematea IT**
**Inscripción CE**
Umeen liburutegia
**Euskeraz**
18:00etan Doan

**24-26**

**Hezkuntzaren aldeko mundu-kanpaina**
Campaña mundial en favor de la Educación
**Apirilak 24 DOCUMENTAL**
"En el mundo a cada rato (10-14 urte)
**Apirilak 26 DOCUMENTAL**
"Amina y Musa aprenden" (6-9 urte)
17:00h. gratis
Biblioteca infantil-Umeen liburutegia

**25**

**Hezkuntzaren aldel**
Campaña mundial e
**TAILERRA**
"Irudi haundia: es
(6-9 urte)

17:00etan Doan
Umeen liburutegi

# ako jarduerak

## antiles

en Nazioarteko eguna
nal del Libro Infantil
**SSING**

egia

n

keta kluba
a infantil
**ITXITA**
**CERRADA**
egia

n

txiki txoko

**deko mundu-kanpaina**
l en favor de la Educación

eskubideak hasieratik"

n
egia

**2**



Haur Liburuaren Nazioarteko eguna
Irrintzi produkzioak aurkezten du:
**"Lau anaia umezurtzak"**

Umeen liburutegia
**Euskeraz**
18:00etan Doan. KUTXA-k lagunduta

**SANJUANAK 2012 EIBARREN**
**kartel lehiaketa**

Informazioa- información **PEGORA**
Lanak aurkezteko epea-plazo entrega
maiatzak 11 de mayo

**28**



Zapatuko ipuina
Ingumak Antzerki Taldeak aurkeztuta
**"Bidaian"**

Umeen liburutegia
**Euskeraz**
18:00etan Doan. KUTXA-k lagunduta

EIBARKO UDALA
Portalea Kultura Etxea
Casa de Cultura Portalea

# *teatro* COLISEO antzokia

**zine egitaraua** ***programa de cine***

**apirila - *abril***




**INTOCABLE**




**INDOMABLE**




**AL BORDE DEL ABISMO**




**LORAX, EN BUSCA DE LA TRÚFULA PERDIDA**




**LOS IDUS DE MARZO**




**BATTLESHIP**




**LOS VENGADORES**




**LA FRÍA LUZ DEL DÍA**




**EL EXÓTICO HOTEL MARIGOLD**




**MONEYBALL: ROMPIENDO LAS REGLAS**




**TITANIC 3D**




**TODOS LOS DÍAS DE MI VIDA**

SARRERAK/*ENTRADAS*

| | |
|---|---|
| arrunta/*normal* | 5,50 € |
| 3 D | 6,50 € |
| 3 D Warner | 7,50 € |

astelehena ikuslearen eguna
*lunes día del espectador*

| | |
|---|---|
| arrunta/*normal* | 4,00 € |
| 3 D | 5,00 € |
| arrunta/*normal* Warner | 4,50 € |
| 3 D Warner | 6,50 € |

EGITARAUAN ALDAKETAK EGON DAIZTEKE.
ORDUTEGI ETA ARETOEI BURUZKO INFORMAZIOA KARTELERAN

*PROGRAMACIÓN SUJETA A CAMBIOS. PARA HORARIOS Y SALAS CONSULTAR CARTELERA*

# *CINE CLUB* EGO IBAR ZINE KLUBA

**Hezkuntza Esparrua** 17:30 - 21:00 2 € ***Complejo Educativo***




**LAS MANOS EN EL AIRE**
**apirilak 26 *abril***

Francia 2010 90 min.
Zuzendaritza / Dirección: **Romain Goupil**
Antzezleak / *Reparto*: **Valeria Bruni-Tedeschi, Linda Doudaeva, Jules Ritmanic, Louna Klanit, Louka Masset**

2067ko martxoaren 22a. 60 urte lehenago gertatu zitzaiona gogoratzen du Milanak. 2009. urtea, Paris. Jatorri txetxeniarra duen Milana Institutuko bosgarren mailako ikaslea da. Lagun koadrila propioa du Milanak, Blaise, Alice, Claudio, Ali etaYousseff. Egun batean Yousseff, immigrante ilegalak gurasotzat dituen mutila, deportatua da. Milana zerrendako hurrengoa izan daiteke. Arriskuaren aurrean, umeek ekintzara igarotzea erabakitzen dute. Beti elkarrekin egongo direla zin egin eta Milana nola libratu pentsatzen hasten dira.

*22 de marzo de 2067. Milana recuerda lo que le sucedió 60 años antes. Paris, 2009. Milana, de origen checheno, es alumna de quinto año de Instituto. Milana tiene su propia pandilla de amigos, Blaise, Alice, Claudio, Alí y Youssef. Un día, Youssef, cuyos padres son inmigrantes ilegales, es deportado. Milana puede ser la próxima en la lista. Ante el peligro, los niños deciden que es hora de actuar. Juran que van a permanecer siempre juntos y empiezan a tramar cómo salvar a Milana.*

## KIROLAK DEPORTES

## XLI MEMORIAL VALENCIAGA

***Clásica Copa de España de ciclismo en ruta***




**apirilak 1 *abril* - Untzaga**

## EUSKAL HERRIKO ITZULIA
## VUELTA AL PAÍS VASCO

**apirilak 4 *abril* - Llegada de la 3ª etapa - Arrate**
**apirilak 5 *abril* - Salida de la 4ª etapa - Eibar**

## LII MEMORIAL OTXOA

***Campeonato de Gipuzkoa Cadete***




**apirilak 15 *abril***

antolatzailea Eibarko Txirrindulari Elkartea *organiza*

# EIBARKO BONBARDAKETAREN 75. URTEURRENA

## BIHARAMUNEKO SOKA-DANTZA

Dantza eta pakea - *Jornada de danza y paz*

**apirilak 21 *abril*** 10:00

**Udaletxeko Batzar Nagusian - *Salón de Plenos del Ayuntamiento***



Eibarko bonbardaketaren 75. urteurrenean, euskal dantzaren alorrak ekitaldi berezi bat egingo du apirilaren 21ean. Gerraren ankerkeria eta krudelkeriaren lezioa ikasita daukagula erakutsi, eta dantzarion artean elkarbizitza beharrezkoa dela eta etorkizunerako urratsak elkarrekin emateko borondatea dagoela aitortuko diote elkarri. Euskal Herri osotik etorritako dantzazaleak elkartuko dira Eibarko Udaletxean, Euskal Dantza Adierazpena sinatu, eta segidan, Biharamuneko Soka-dantza Untzaga Plazan dantzatzeko.

**Biharamuneko soka-dantza Eibarren**

- 12:00. Euskal Dantzaren Adierazpena Eibarko Udaletxean
- 13:00. Biharamuneko soka-dantza Untzaga plazan
- 14:30. bazkaria Iruki sagardotegian

## *75 ANIVERSARIO DE LOS BOMBARDEOS DE EIBAR*

**Jesús Gutiérrez**

**hitzaldia conferencia**

**apirilak 25 *abril*** 19:00 **PORTALEA**

*El historiador Jesús Gutiérrez presentará en esta conferencia el resultado de sus investigaciones sobre la Guerra Civil en la Ciudad de Eibar. En la conferencia disertará sobre las peculiaridades que se dieron en la ciudad armera como frente de guerra durante siete meses, en las que recibía los cañonazos desde las posiciones de Arrate y Karakate, y la de haber sufrido bombardeos aéreos.*

*Según el historiador, las circunstancias más dramáticas en cuanto a víctimas mortales y destrucción de la ciudad se produjeron debido a los bombardeos aéreos de los sublevados al poder legítimo de la República, que tenían como objetivo los lugares estratégicos para la fabricación de armas y los cuarteles para tropas situados en los conventos de Isasi y Errebal. La máxima crueldad la vivió la ciudad entre los días 24 y 25 de abril de 1937, días en los que sufrió los bombardeos italianos que provocaron decenas de víctimas.*



*Eibarko Udal Artxiboa / Archivo Municipal de Eibar*

antolatzailea EIBARKO UDALA *organiza* laguntzailea BADIHARDUGU EUSKARA ELKARTEA *colabora*

## *75 ANIVERSARIO DEL BOMBARDEO DE EIBAR*

# POESIA ETA KANTUEN ERREZITALA

**Maialen Lujanbio / Juan Pinilla**

**apirilak 26 *abril*** 20:30 7 € ***teatro* COLISEO antzokia**

# Lujanbio eta Pinilla Eibarren. Gerra Zibila gogoan



*Armeria Eskolaren Artxiboa / Archivo Armeria Eskola*

Eibarko bonbardaketaren 75. urteurrena gogoratzeko apirilean Eibarren egingo diren ekitaldien barruan, **Maialen Lujanbio** bertsolariak eta **Juan Pinilla flamenko** abeslariak emanaldi berezia egingo dute. Artista biek gerra garaia gogoraraziko digute, bakoitzak bere alderditik, bertso, abesti eta poesietan oinarrituta. Aipatutako bi lagunen ahotsaz gainera, argazkiak eta bideoak ere izango ditugu bidelagun, gerra garaiak Eibarren izan zuen eragina gogora ekartzeko. **Indalecio Ojangurenek** eta **Castrillo-Ortuostek** ateratako argazki zaharrak, gerra garaian Eibarren grabatutako pelikula zaharrak, eta gerrako amesgaizto hura zuzenean bizi izan zuten eibartarren lekukotasunak. Izan ere, gerra garaia ezagutu zuten adineko eibartarren kontakizunak ere entzun eta ikusi ahalko ditugu ikuskizun hunkigarri honetan.

**Maialen Lujanbio**k, nola ez, bertsoa izango du lan-tresna. Oraingoan ez du izango, hala ere, gai-jartzailerik. Gerrako irudi eta lekukotasunek emango diote hizpidea Lujanbiori. Errepublika garaiko giroa, gerra nola piztu zen, gerra garaiko egoera latza, Akondia eta Kalamuako frontea, bonbardaketa, Eibar erre zenekoa (1937ko apirilaren 25ean)… **Lujanbio**ak bertsoak jarriko dizkio Gerra Zibilean Eibarren gertaturikoari.

**Juan Pinilla**k, berriz, bere azkenengo diskoko hainbat abesti ekarriko ditu. Flamenkoan aditua da **Pinilla**, eta bere azken lana, ***"La voces que no callaron"***, gerraren inguruko hainbat olerkirekin osatu du. Besteak beste, **Gabriel Celaya**, **Miguel Hernandez**, eta **Antonio Machado**ren poesiak ekarriko ditu Eibarrera.



**Maialen Lujanbio Zugasti** (Hernani, Gipuzkoa, 1976). Arte Ederretan lizentziaduna, gazte-gazterik hasi zen bertsotan. Lehen urteetatik nabarmendu zen bertsoak sortzeko zuen gaitasunarengatik. Emakume izanik zenbait traba eta oztopo gainditu behar izan zituen, baina laster aurkitu zuen bere lekua bertsolari ezagun eta handienen artean. 15 urterekin Xenpelar saria irabazi zuen (1991). Horren ostean, Osinalde (1992) eta Lizardi (1992) sariak ere jaso zituen eta 2003an Gipuzkoako txapelketa irabazi zuen. 2009az geroztik, Euskal Herriko Txapeldun Nagusia da.



**Juan Pinilla Martín** (Huétor-Tájar, Granada, 1983 ) flamenko abeslaria da. Estrella Morente eta Marina Herediaren belaunaldikoa, "kantaore intelektuala" deitu izan zaio. Izan ere, flamenkoa abesteaz gain, Pinilla idazlea, kritikaria, ikerlaria eta zutabegilea ere bada, eta itzultzailea ikasketaz. 2007. urtean "Lámpara Minera" izeneko lehiaketa irabazi zuen, flamenko munduan dagoen saririk garrantzitsuenetakoa. 2011. urtean "*Las voces que no callaron*" liburua eta diskoa kaleratu zituen. Askatasunaren eta demokraziaren alde borroka egin zuten artistak gogoratzen ditu Pinillak lan horretan.

antolatzailea EIBARKO UDALA *organiza* laguntzailea BADIHARDUGU EUSKARA ELKARTEA *colabora*

# EIBARKO BONBARDAKETAREN 75. URTEURRENA



## "BONBARDAKETAK 1937"

**liburuaren aurkezpena, Bernardo Atxaga**ren eskutik.

**apirilak 27 *abril*** 19:00 **PORTALEA**

Literaturako Sari Nazionalek ondorengo lurraldeen inguruko bonbardaketen gainean idazten duten fikziozko liburua: **Bernardo Atxaga** (Eibar), **Ignacio Martínez de Pison** (Gernika), **José Fernández de la Sota** (Bilbao), **Miguel González San Martin** (Ezkerraldeko korridorea).

*Libro ficción en el que Premios Nacionales de Literatura escriben sobre los bombardeos de los siguientes lugares: **Bernardo Atxaga** (Eibar), **Ignacio Martínez de Pison** (Gernika), **José Fernández de la Sota** (Bilbao), **Miguel González San Martin** (corredor de la Margen Izquierda).*

"Bizkaiko gaiak" - BBK bbk



## "ITXAROPENA

*espectáculo de luz, sonido e imagen*

**apirilak 27 *abril*** 22:30 - 23:30 **UNTZAGA PLAZA**

*Es un espectáculo que interpreta en clave artística multimedia los bombardeos sufridos en diversos municipios de Euskadi en el año 1937. De la vida próspera a los malos tiempos y la amenaza. De la destrucción a la esperanza y reconstrucción. Una aproximación a esos momentos tan dramáticos a través de la danza, la música, la luz, proyección, ligth painting (pintura con luz)... La creación en directo para evocar aquellos momentos.*

## ANDRÉS EGIGUREN ORKESTRA
## SOSTOA ABESBATZA - EASO ABESBATZA

**kontzertua** ***concierto***

**apirilak 28 *abril*** 19:00 10 € ***teatro* COLISEO antzokia**

*La música también se suma a los actos conmemorativos del **75 aniversario del bombardeo de Eibar**. Y lo hará de la mano de un concierto en el teatro Coliseo en el que intervendrán las agrupaciones eibarresas **Sostoa Abesbatza** y **Orquesta Andrés Egiguren** junto al donostiarra **Easo Abesbatza**.*

*CANTATA "GERNIKA", Cantata para Coro y Orquesta, Pablo Sorozabal.*
*CONCIERTO PARA SOLISTA Y ORQUESTA.*
*Concierto para violín en mi menor, Op. 64 de Mendelssohn.*

*SINFONÍA.*
*Sinfonía nº 9, en Mi menor, op 95, "Sinfonía del Nuevo Mundo", Antonin Dvorák.*

antolatzailea EIBARKO UDALA *organiza* laguntzailea BADIHARDUGU EUSKARA ELKARTEA *colabora*

# 75 ANIVERSARIO DEL BOMBARDEO DE EIBAR



Eibarko Udal Artxiboa / Archivo Municipal de Eibar

## PASEO-RECORRIDO HISTÓRICO BOMBARDEOS E INCENDIO DE EIBAR

**maiatzak 5 mayo** 10.00 -13:00
**UNTZAGA PLAZA**

*Recorrido urbano por los lugares de especial relevancia en la Guerra Civil en Eibar, y especialmente en los bombardeos y ataques diarios con cañones de 1936 y 1937.*

*Se visionarán fotografías de la época, se explicarán los medios de defensa utilizados, situación de los refugios antiaéreos, destrozos ocasionados, objetivos preferentes de la aviación alemana e italiana, ubicación de los cañones de los sublevados en Arrate, Karakate y de los defensores en lugares como Ubitxa, Ipurua, Arrajola, etc.*



Eibarko Udal Artxiboa / Archivo Municipal de Eibar

## EUSKAL HERRIAREN ERAIKUNTZA GERRA OSTEAN: EIBARKO HERRIAREN BERRERAIKUNTZA

**Aurkezpena**

**Javier Muñoz 2009ko Juan San Martin bekaren irabazlea**

**maiatzak 8 *mayo*** 19:00 **PORTALEA**

1937an, Guda Zibilarekin, Eibarko udalerri populatu eta industriala partzialki txikituta geratu zen. Jarraian, inprobisazioa, nahasketa, koordinazio eta mota guztietako baliabiderik gabe (ekonomiko, material zein gizakiena), erakunde eta partikularrek, batzuetan interes kontrajarriekin, berreraikuntza antzu eta geldoa hasi zuten, 1938tik 1957ra bitartean "Dirección General de Regiones Devastadas y Reparaciones" estatuaren instituzio berriak kontrolatu zuena.

*En 1937 el populoso municipio industrial de Éibar quedó parcialmente destruido como consecuencia de la Guerra Civil. Al poco tiempo, desde la improvisación, la confusión y la falta de coordinación y todo tipo de medios (económicos, materiales y humanos), instituciones y particulares, en ocasiones con intereses contrapuestos, emprendieron su lenta y laboriosa reconstrucción, que a partir de 1938 y hasta 1957 quedó bajo el control y supervisión de un nuevo organismo estatal: la "Dirección General de Regiones Devastadas y Reparaciones".*

antolatzailea EIBARKO UDALA *organiza* laguntzailea BADIHARDUGU EUSKARA ELKARTEA *colabora*

## *CONCURSO DE CARTEL* SANJUANAK 2012 EIBARREN KARTEL LEHIAKETA









**Eibarko Udalaren Euskara eta Kultura Batzordeak 2012 Sanjuanetarako kartelaren lehiaketa** deialdia egiten du.
Saria 600 eurotakoa izango da.

*La **Comisión de Euskara-Cultura del Ayuntamiento de Eibar** convoca a concurso el cartel para las fiestas de **Sanjuanak 2012**.*
*La dotación del premio será de 600 euros*

## ALKOHOL GEHIEGIKERIAREN KONTRAKO UMOREZKO PEGATINA LEHIAKETA
## *CONCURSO DE PEGATINA HUMORÍSTICA CONTRA EL ABUSO DEL ALCOHOL*




**Eibarko Udalaren Euskara-Kultura eta Gizartekintza batzordeek festetan alkohol gehiegi edatearen kontrako umorezko pegatinaren lehiaketa** sortu nahi dute.

Hona hemen bete beharreko oinarriak;

Gaia: alkohol gehiagi ez edatea; alkohola neurrian edatea komeni dela gogoratzea

Idatzia: norberaren aukeran

Neurriak: 7x7 zm, borobila, lauki itxurakoa.....

Kolorea: nahi dena

Saria 180 eurotakoa izango da.

*La **Comisión de Euskara-Cultura y la de Servicios Sociales del Ayuntamiento de Eibar** convocan a concurso la realización de una **pegatina humorística contra el abuso del alcohol en fiestas**.*

*Tema: el abuso del alcohol; mensaje que invite a la moderación de su consumo*

*Texto: libre*

*Dimensiones: 7x7cm, circular, cuadrado.....*

*Color: libre*

*La dotación del premio será de 180 euros.*

informazioa — **PEGORA** — *información*

lanak aurkezteko epea — **maiatzak 11 *mayo*** — *plazo de entrega de los trabajos*

## GAZTE OPORRALDIAK 2012

**Gipuzkoako Foru Aldundiak** antolatzen dituen udalekuak direla eta, izena aurrez emateko epea ireki da.
Hona hemen izena emateko aldiak adinaren arabera:

- **14 - 17 urte bitartekoak: apirilaren 16tik 24ra**.

**Eskaintzak aisialdirako jarduerak, abentura, kirola eta hizkuntza** dira.

*Ya está abierto el plazo de preinscripciones para las colonias que organiza todos los veranos la **Diputación Foral de Gipuzkoa**.*
*Los periodos de preinscripción son:*

- *Jóvenes de **14 a 17 años**: **del 16 al 24 de abril**.*

*La oferta se compone de **actividades de tiempo libre, aventura, deportes e idiomas**.*

**INFORMAZIOA ETA IZENEMATEAK / *INFORMACIÓN E INSCRIPCIONES*:**

www.gipuzkoa.net/oporraldi 943 445 980
PORTALEA. Bista Eder, 10-1. EIBAR 943 708 435

## IKASTAROAK *CURSOS*

## INDIANOKUA GAZTELEKUA

| | |
|---|---|
| **PLAY/WII** | **apirilak 1, 4, 22, 28 *abril*** |
| **MUNDUKO APAINGARRIAK** | **apirilak 14 *abril*** |
| **GAZTEPINTXO** | **apirilak 19, 26 *abril*** |
| **MUNDUKO MUSIKAK** | **apirilak 20 *abril*** |
| **MUNDUKO ERREZETAK** | **apirilak 21 *abril*** |
| **BREAKDANCE IKUSKIZUNA** | **apirilak 27 *abril*** |
| **PAINTBALL IRTEERA** | **apirilak 29 *abril*** |

**Apirilak 5, 6, 7, 8 eta 9 gaztelekua itxita**
**Apirilaren 10etik 12ra ordutegi berezia: 16:30 - 20:30**

### LARRAIN DANTZA, FANDANGO ETA ARIN-ARIN IKASTAROA

**apirilaren 18tik maiatzaren 23ra**.

Sei asteko ikastaroa, asteazkenetan 7etatik 8:30etara, Arrate Kultur Elkartean.

Prezioa: 12 € bazkideek eta 15 € bazkide ez direnek.

Izenematea: Arrate Kultur Elkarteko bulegoan (astearte edo ostegun arratsaldetan) 943 202299
**arratekultu@gmail.com**

**Internet Ikastaroa**
***Curso Internet Kzgunea***
- **apirilak 5-16 *abril***........................9:00-11:00
- **apirilak 5-16 *abril***......................16:00-18:00

**Birus kontako** (Ezagutu debaldeko biruskontakoak)
***Antivirus***
- **apirilak 2 *abril***..............................9:00-11:00

**Software libreko modulua** (Ezagutu Ubuntu, softonic, etab.)
***Modulo de Software libre*** *(Conoce Ubuntu, softonic, etc. )*
- **apirilak 2-13 *abril***......................18:00-20:00

***Modulo de Imagen y sonido*** *(Tratamiento de imagenes digitales y edición de música)*
**Irudi eta Soinua** (Ezagutu arlo honetan dauden programa batzuk picinik, gimp, audacity,...)
- **apirilak 2-16 *abril***......................11:00-13:00

***Ebay*** *(Compra y vende en internet)*
- **apirilak 10 *abril***.........................16:00-18:00

**Paypal** (ordaindu era seguruan)
***Paypal*** *(Paga de una manera segura)*
- **apirilak 13 *abril***...........................9:00-11:00

**Softonic** (Zelan deskargatu programas edo jokuak)
***Softonic*** *(Descarga programas y juegos)*
- **apirilak 19 *abril***.........................11:00-13:00

**Metaposta** (Interneteko Kutxa)
***Metaposta*** *(El nuevo buzón de internet)*
- **apirilak 23 *abril***.........................11:00-13:00

**DEBABARRENEKO ESPERIENTZIA ESKOLA**
***ASOCIACIÓN DEL ALUMNADO DE LA ESCUELA DE LA EXPERIENCIA DE DEBABARRENA***

***FORO DE PLANTAS: LA ANÉMONA Y LA NUEZA***
**apirilak 2 *abril*** 16:00 **PORTALEA**

**EZAGUTU-*VISITA AL ARCHIVO MUNICIPAL***
**apirilak 4 *abril*** 09:55
***soportales del AYUNTAMIENTO*** *plazas limitadas*

***CAFÉ TERTULIA: MEDICINA ALTERNATIVA***
**apirilak 11 *abril*** 11:00 **DEPORTIVO**

***MÚSICA: Marina Lertxundi***
**apirilak 17, 24 *abril*** 10:00 - 12:00
**ARMERIA ESKOLA**

***SENDERISMO: ABADIÑO (Muntxaraz, Larrigan, Mendiola, Sagasta) ATXARTE***
**apirilak 18 *abril***
10:13 **ESTACIÓN -** 10:15 **ARDANTZA**

***VIDEOCONFERENCIA***
***CRISIS ECONÓMICA: CLAVES PARA SU COMPRENSIÓN***
**Isaac Guereca**
**apirilak 19 *abril*** 11:00 - 13:00
**HEZKUNTZA ESPARRUA -COMPLEJO EDUCATIVO**

***COMPETENCIAS CONVERSACIONALES:***
***Saber conversar para mejorar las relaciones***
***EQUILIA***
**apirilak 26 *abril*** 10:00 - 12:00
**ARMERIA ESKOLA**

**KALEETAN KANTUZ**
Ensayos: **apirilak 19, 26 abril** 19:30
**San Andres Parrokia**
Salida: **apirilak 21 abril** 19:45
**UNTZAGA PLAZA**

**ikasteneibar@yahoo.es - publikasten@yahoo.es**

## *CURSO DE COCINA NATURAL Y ENERGÉTICA*



***CÓMO LLEVAR UNA ALIMENTACIÓN EQUILIBRADA***
**maiatzak 5 *mayo*** **PORTALEA**

***LA ALIMENTACIÓN Y LAS EMOCIONES***
**maiatzak 26 *mayo*** **PORTALEA**

informazioa eta izenematea / *información e inscripciones*
Ines 678068959 **asoc.defibel@gmail.com** Jesús 695780058 **jesusrom@euskalnet.net**

antolatzailea DEFIBEL Asociación de Fibromialgia y Astenia Crónica del Bajo Deba *organiza*

## EIBARKO UDALA www.eibar.net *AYUNTAMIENTO DE EIBAR*

**PEGORA** **Herritarren zerbitzurako bulegoa / *Oficina de servicio a la ciudadanía***
Untzaga Plaza, 1 Tel: 010 / 943 708 400 - pegora@eibar.net

| | | |
|---|---|---|
| astelehena - ostegunera | 8:30 - 14:30 / 15:30 - 19:00 | *lunes - jueves* |
| ostirala | 8:30 - 14:30 | *viernes* |

**Telefonora deitzeko orduak** ***Atención telefónica***

| | | |
|---|---|---|
| astelehena - ostegunera | 8:00 - 19:00 | *lunes - jueves* |
| ostirala | 8:00 - 15:30 | *viernes* |

## PORTALEA Bista Eder, 10 tel. 943 708 439 cultura@eibar.net

**ASTE SANTUA - apirilaren 5etik 9ra itxita**
***SEMANA SANTA- cerrado del 5 al 9 de abril***

| | | |
|---|---|---|
| astelehena - ostirala | 9:00 - 21:30 | *lunes - viernes* |
| larunbata | 10:00 - 13:30 / 16:00 - 21:00 | *sábado* |
| igandea | 10:00 - 13:00 / 16:00 - 21:00 | *domingo* |

**ERAKUSKETA ARETOA** ***SALA DE EXPOSICIONES***

| | | |
|---|---|---|
| asteartea - igandea | 18:30 - 20:30 | *martes - domingo* |

**JUAN SAN MARTIN LIBURUTEGIA** bibliotecaspublicas.es/eibar liburutegiak.blog.euskadi.net/eibar
liburutegiak.blog.euskadi.net/eibarkoumeak tel. 943 708 437 biblioteca@eibar.net

| | | |
|---|---|---|
| astelehena - ostirala | 9:00 - 13:30 / 16:00 - 20:30 | *lunes - viernes* |
| larunbata - igandea | 10:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00 | *sábado - domingo* |

**ARMAGINTZAREN MUSEOA** tel. 943 708446 ***MUSEO DE LA INDUSTRIA ARMERA***
www.armia-eibar.net museo.ei@eibar.net

| | | |
|---|---|---|
| asteazkena - larunbata | 16:00 - 20:00 | *miércoles - sábado* |
| igandea | 10:00 - 13:00 | *domingo* |

## *teatro* COLISEO antzokia Merkatu kalea, 2 tel. 943 206 342 cultura@eibar.net

**SARRERAK - *ENTRADAS***

**aldez aurreko salmenta - *venta anticipada***
astelehena 19:00 - 20:00 *lunes*
ostirala 21:00 - 22:00 *viernes*

**salmenta arrunta - *venta ordinaria***
ikuskizuna hasi baino ordubete lehenago
*una hora antes del inicio de cada espectáculo*

**Zinema - *Cine***
**17:00etako emanaldia - *sesión de las 17:00 horas***
emanaldia hasi baino ordubete lehenago
*una hora antes del inicio de la sesión*

**gainontzeko emanaldiak - *resto de sesiones***
emanaldia hasi baino ordu erdi lehenago
*Media hora antes del inicio de cada sesión*

## INDIANOKUA GAZTELEKUA Muzategi, 3 gazteria@eibar.net

| | | |
|---|---|---|
| asteartea - osteguna | 18:00 - 20:00 | *martes - jueves* |
| ostirala | 16:30 - 21:00 | *viernes* |
| larunbata | 17:00 - 21:00 | *sábados* |
| igande eta jai-egunak | 17:00 - 20:30 | *domingos y festivos* |

## ARRATE KULTUR ELKARTEA - TOPALEKU Zuloagatarren, 3 tel. 943 202 299

www.eibar.org/blogak/kultu

| | | |
|---|---|---|
| astelehena - ostirala | 19:00 - 21:00 | *lunes - viernes* |
| larunbata, igande eta jai-egunak | 12:00 - 14:00 / 19:00 - 21:00 | *sábados, domingos y festivos* |

## HEZKUNTZA ESPARRUA/*COMPLEJO EDUCATIVO* Otaola Hiribidea, 29 tel. 943 208 444

www.eibarres.net

## Kz GUNEA PORTALEA. Bista Eder, 10 tel. 943 208 670

www.kzgunea.net

| | | |
|---|---|---|
| astelehena - ostirala | 9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00 | *lunes - viernes* |

argitaritzailea: Eibarko Udala / koordinatzailea: Kultura, Euskara eta Hezkuntza Saila
idatziak, diseinu eta maketazioa: ARBI Edición / inprimategia: GERTU / Tirada: 7.000 ale

# NORA

**Mikel Urdangarin & Traspasos**

**apirilak 13 *abril*** 20:30 7 € ***teatro* Coliseo antzokia**

*La música de **Mikel Urdangarin** y el movimiento de las bailarinas de **Traspasos** se funden en **Nora** (Hacia dónde). Un nuevo proyecto donde se unen dos formas de expresión, dos lenguajes universales de los que el público obtendrá multitud de sensaciones. Acompañado del violín de **Nika Bitchiashvili** y del piano de **Koldo Uriarte** se completa este nuevo viaje de **Mikel Urdangarin** y **Traspasos**. A través de diez **canciones, música y movimiento** nos proponen un viaje emocional e intenso, que está gustando mucho en todos los lugares donde se presenta.*




**Mikel Urdangarin**en doinuak eta **Traspasos** dantza taldearen mugimenduak bat egingo dute Noran. Proiektu berri honetan, bat egingo dira bi adierazpen motatan, ikus-entzunleek hainbat sentsazio lortuko dituzten bi hizkuntz unibertsalen bidez. **Nika Bitchiashvili**ren biolina eta **Koldo Uriarte**ren pianoaren laguntzarekin osatuko da Mikel Urdangarin eta Traspasosen bidai berri hau.

Norak ez du hari narratibo bat jarraitzen, ez du istoriorik kontatzen, baina izenburuarekin jolastuz **bidaia emozional intentsu bat** egiteko aukera ematen dio ikusleari. Mikel Urdangarinek 'Panderoaren gizona' edo 'Anek idatzi dit zutaz' bezalako abesti propioak interpretatzen ditu, baina baita autore ezberdinen kantak ere. Folk-a edo fadoa bezalako generoak hartzen dituen hamar melodia intimista dituen ikuskizuna da, eta **soinuak**, dantzarien bitartez, **mugimendu** bilakatzen dira.

## Gitarra eta ahotsa

**Mikel Urdangarin**ek (Zornotza,1971) bertsolaritza munduan eman zituen bere lehen pausoak, baina musikaren bidea hartu zuen geroago, gitarra eta ahotsaz baliatuta. Estilo intimista jorratu duen arren, beste esparru batzuk ere garatu ditu. Ezbairik gabe, **euskal kantagintza**k azken urteotan eman duen izenik garrantzitsuenetakoa dugu zornotzarra.

**Haitzetan** (1997) bere estreinako lana izan zen, gitarra eta txeloz jantzitako doinuak, ahotsa ardatz dela. **Badira hiru aste** (1998) diskoan hain gogoko duen Eskoziara egindako bidaiaren gorabeherak kantu bihurtu zituen. Landuagoa eta sakonagoa, **Espilue**rekin (2000) izugarrizko arrakasta lortu zuen. Kirmen Uribe idazlea eta Bingen Mendizabalekin elkarlanean, **Bar Puerto** (2001) lan literario musikala kaleratu zuen ondoren. 2002an, **Heldu artean** (2002) izeneko disko berria aurkeztu zuen eta hurrengo urteko abenduan argitaratutako **Lagun artean** (2002) DVDan, bere diskoagrafiari errepasoa egiten dio. Bitartean, **Zaharregia Txikiegia agian** (2003) lan multidisziplinarrean aritu zen Kirmen Uribe idazlea, Rafa Rueda, Bingen Mendizabal musikariak eta Mikel Valverde ilustratzailearekin batera, New Yorken egindako poesia errezitaldi batzuetatik abiatu zen proiektu hau. New Yorketik bueltan, barrura begira jarri zen, ostera ere, ordura arte egin izan zuen soinua eraldaturik ekarri zuen **Dana**n (2005). Hasierako disko guztiak Gaztelupeko Hotsak diskoetxearekin argitaratu ostean, Dana Elkarrekin atera zuen, eta **Anek idatzi dit zutaz** (2007), berriz, autoekoitzi egin zuen. 2009an bere azken diskoa aurkeztu zuen Urdangarinek: **Zubia** (Baga-Biga).